

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

51/2026 Mozioa, maiatzaren 14koa, Arabako Lurralde Historikoko segurtasunik ezaren egoerari buruzkoa

Arabako Batzar Nagusi hauetako Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Batzordeak, 2026ko maiatzaren 14an egindako bileran, mozio hau onetsi zuen:

51/2026 Mozioa, maiatzaren 14koa, Arabako Lurralde Historikoko segurtasunik ezaren egoerari buruzkoa.

1. Arabako Batzar Nagusiek Ertzaintzaren eta Arabako udaltzaingoan lana babesten dute, herri-tarren segurtasunaren prebentzioan eta zigor-arloko legez kontrakoen ikerketan, eta toki-erakundeekiko lankidetzan babesten dute, segurtasuna eskaintzeko, gure lurralde historikoko landa-eremuarekiko konpromisotik abiatuta.

2. Arabako Batzar Nagusiek Ertzaintzaren eta udaltzaingoan aldeko apustua egiten dute, hurbileko polizia baita, pertsonen eta auzoen segurtasuna ematen diena, eta baliabide tekniko aurreratuekin eta kriminalitate modu berrietara (ziberdelinkuentzia edo eraso matxistak) egokitzeko gaitasunarekin egiten duena.

3. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote Miñoien kidegoak jarrai dezala, besteak beste, foru-ondarea babesten eta zaintzen, errepideak zaintzen eta ikuskatzen, landa-ingurunean patruilatzen edo Ertzaintzako gainerako unitateei laguntzen.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko maiatzaren 14a

Lehendakaria

IRMA BASTERRA UGARRIZA